



Andoingo Udala

2024UDOS0012

## Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2024/09/26

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 26/09/2024

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

### Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Andoni Alvarez Lete

Zinegotziak: /

Concejales:

#### EH-Bildu

Marta Lasa Goñi  
Garazi Usandizaga Zubiria  
Iosu Mateo Torrillos  
Haizea Barandiaran Zubillaga  
Diego Barrasa Ruiz  
Larraitz Arriola Larrarte

#### PSE-EE

Maidier Lainez Lazcoz  
José Luis Verdasco Gutierrez  
Ascensión Parrón Peguero  
Aritz Alkain López  
María Belén Moreno Méndez

#### EAJ-PNV

Imanol Goenaga Egibar  
Idoia Mikelez Alonso  
M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández

#### Elkarrekin Podemos

Jose Mari Iparragirre Balda

Akta Zenbakia
00000012
Eguna
2024/09/26
Hasiera
19.00
Amaiera
19.31

### Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

### Kontuhartzailea

Myriam Lizaso  
Arruabarrena

### Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Xabier Fondón Pajares --EH Bildu

### Gai Zerrenda:

- 2024/06/27 eta 2024/07/18an egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

### Xedapenak

- Onartzea, hasierako izaeraz, euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berriazko ordenantzaren aldaketa proposamena.
- 2024/06/30 datako kontuhartzailearen txostenaren berri ematea.

### Kontrola

- Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1646/2024 zenbakidunetik 2071/2024 zenbakidunera eta Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakien berri ematea, zehazki, 21/2024. aktatik 23/2024 aktara.

### Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 27/06/2024 y 18/07/2024.

### Parte Dispositiva

- Aprobar, con carácter inicial, la propuesta de modificación de la ordenanza específica reguladora de la concesión de subvenciones para actividades de promoción del euskera.
- Dar cuenta del informe de la interventora de fecha 30/06/2024.

### Parte de Control

- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la n° 1646/2024 y la n° 2071/2024 y de los acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno Local, en concreto los comprendidos entre el acta n° 21/2024 al acta n° 23/2024.



5. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

5.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Arratsalde on eta ongi etorri iraileko ohiko udalbatza honetara. Hasi aurretik, aipatu nahi dut Xabier Fondon zinegotzia bajan dagoela eta bere botoa delegatu egin duela, nigan.

“Besterik gabe, hasiera emango diogu udalbatzari.”

**1. 2024/06/27 eta 2024/07/18an egindako bileren aktak irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/06/27 eta 2024/07/18 datetako bazterraldiei dagozkien aktak irakurtzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontutan harturik, onartutzat eman dira.

**2. Onartzea, hasierako izaeraz, euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketa proposamena.**

Kontuan harturik Andoingo Udalbatzaren Bilkurak, 2022ko uztailaren 22an egin zuen batzarrean, hasierako onespina eman ziola Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzari.

Kontuan harturik ordenantza horren testu osoa, berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko irailaren 29an argitaratu zela behin betikoz, eta bertan honako dirulaguntza-ildoak jasotzen zirela, besteak beste:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko. Ildo honetan arazo ekonomikoak dituzten herritarrei aukera ematen zaie dirulaguntzaren zati bat aurretik jasotzeko, matrikularen % 80, hain zuzen ere.
- Erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako uda ikastaroak egiteko, betiere 30 urtetik beherako herritarrei zuzenduta.

Ikusirik, 2024.07.09an Euskara lansaileko arduradunak egindako txostena.

Ikusirik, 2024.07.18an udal Idazkariak egindako txostena.

Ikusirik, Euskararen Normalkuntzarako Batzorde Irizpenemalearen 2024/07/24 datako irizpena.

Lasa andreak, Euskararen Normalkuntzarako Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honako azalpena emateko:

“Arratsalde on guztioi. Ondoren irakurriko dudan proposamena aurtengo uztailaren 22an, aho batez, onartutako Ordenantzaren aldaketa izango da. 2. atalean, hau da, Euskara ikasteko eta hobetzeko izenekoan, aldatu egiten da 10. artikulua 2. paragrafoa, honela geratzen dena.

“\_Ondorengo baldintzak betez gero, matrikularen %100 ordaintzeko erraztasunak eskuratu ahal izango ditu ikasleak\_.

“Kendu egiten da 10. artikulua 2. atala, holaxe diona \_ Matrikularen gainontzeko %20a ikasleak ordaindu beharko du, eta ikasturte amaieran Udalak itzuliko dio, baldin eta ikastaroan zehar gutxienez %85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu\_.

“Aldatu egiten da 10. artikuluan artikulua azkeneko paragrafoa, honela geratzen dena.\_Gutxieneko % 85eko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen %100 itzultzeko eskatuko die. Diru itzulketa bi hilabeteko epean egin beharko da, bestela ezingo dute hurrengo bi ikasturteetan bekarik eskatu\_.

“Eta, 4. atalean dagokiona, hauxe da aldaketa. Erakunde ofizialek antolatutako Unibertsitate mailako Udako Ikastaroretako izenekoan. Kendu egiten da 16. artikulua 2. baldintza, honela diona, \_30 urte edo gutxiago izatea diru-laguntza eskatzen den momentuan\_.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate jaunak proposamena bozketara



jarri du eta Osoko Udalbatzaren Bilkurak, aho batez, Alkate jaunaren eta EH Bildu, PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onestea, hasierako izaeraz, Andoingo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantzaren aldaketa ondoren zehazten denaren arabera:

II. Atalean, hau da, euskara ikasteko eta hobetzeko izenekoan:

- Aldatu egiten da 10. artikulua 2. paragrafoa, honela geratzen dena:

*“Ondorengo baldintzak betetz gero, matrikularen % 100 ordaintzeko erraztasunak eskatu ahal izango ditu ikasleak:”*

- Kendu egiten da 10. artikulua 2. atala:

*“Matrikularen gainontzeko % 20a ikasleak ordaindu beharko du, eta ikasturte amaieran Udalak itzuliko dio, baldin eta ikastaroan zehar gutxienez % 85eko asistentzia eta aprobetxamendua justifikatzen baditu.”*

- Aldatu egiten da 10. artikulua azkeneko paragrafoa, honela geratzen dena:

**“Gutxieneko % 85eko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen % 100 itzultzeko eskatuko die. Diru-itzulketa bi hilabeteko epean egin beharko da, bestela ezingo dute hurrengo bi ikasturteetan bekarik eskatu”**

IV. Atalean, hau da, *erakunde ofizialek antolatutako unibertsitate mailako udako ikastaroetarako* izenekoan:

- Kendu egiten da 16. artikulua bigarren baldintza:

*“30 urte edo gutxiago izatea dirulaguntza eskatzen den momentuan.”*

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) Udal web-orrian argitaratuz, 30 eguneko epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

### 3. 2024/06/30 datako kontuhartzailearen txostenaren berri ematea.

Ikusirik, 2024ko ekainaren 30ean Kontuhartzaileak emandako txostena.

Alkate jaunak, hartu du hitza, honako azalpena emateko:

Alkate jaunak, hitza hartu du eta honakoa azalpena eman du:

“Dakizuen bezala, hiru hilabetez behin Txosten honek, berez, hiru zati ditu. Lehenengoa, ordainketa epearen informazioa izaten da. Badakizue, legez 30 eguneko epea dutela administrazioek, udalek, ordainketa horiek egiteko. Gure kasuan, egun bat eta 79 beranduago egiten ari gara, hau da, batz bestea 31,79ko epealdira-edo egiten ari gara ordainketa horiek.

“Bestetik, aurrekontuaren exekuzioaren inguruan, hor kapituluka daukazue datu guztiak, zein den 2023ko gerakin erabilgarria, maileguen egoera, aurrekontuaren egonkortasuna eta abar.

“Bueno, zenbaki saltsa handia da, eta nahi baduzue azalduko dizuet. Ez naiz gehiegi luzatuko. Eta azkenik, izango litzakeena da gastuen fiskalizazioa edo fakturak. Hauek denak Ogasun Batzordetik pasa ziren azken batzordean, eta bueno, ekartzen ditugu ba, kontu emateko, berri emateko.”

Alkate jaunak, gaia eztabaidara jarri du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Arratsalde on. Con respecto al informe de intervención del segundo trimestre del 2024, el grupo municipal socialista quiere trasladar una vez más su preocupación, como ya lo hemos hecho en otras ocasiones también la portavoz del grupo municipal socialista, Maider Lainez, y así venimos haciéndolo de un tiempo a esta parte en todas las comisiones afectadas, como es el caso de Hacienda, Educación y Cultura y Servicios Sociales. Leído el informe, nos preocupa sobremanera el



estado en el que se encuentran las contrataciones, porque tenemos aquí y me voy a ceñir al informe de la interventora, siete contratos, aunque nos consta que hay más, que algunos de ellos han finalizado hace más de un año y no se ha realizado la prórroga escrita, pero, pero que aún así siguen dando servicio. Por ello, consideramos que es esencial, y de primera necesidad, que el equipo de gobierno actúe y se ponga manos a la obra en este asunto.

“Primeramente, para obtener un diagnóstico real de la situación de la contratación en todas las áreas de este Ayuntamiento. Los contratos pendientes, que, como vemos, algunos llevan más de un año caducados, las licitaciones habituales, es decir, las correspondientes a los servicios actualmente en vigor, que se van repitiendo año tras año, las nuevas licitaciones necesarias, por ser actualmente contratos menores recurrentes y las que entendemos el equipo de gobierno pretende llevar a cabo. Y, segundo, obtenida esta fotografía, establecer un plan de acción en el que se marquen fechas y prioridades para solucionar esta situación. No es ni más ni menos lo que llevamos pidiendo desde hace meses en las diferentes comisiones y que aún no se nos ha presentado. Y estamos plenamente convencidos que será una herramienta útil para organizar también la sobrecarga de trabajo que por este asunto nos trasladan los trabajadores municipales a los cuales aprovecho esta intervención, en nombre del grupo municipal socialista, para reconocer su ingente y excelente labor en esta materia.

“Volviendo a la parte política, entendemos también que solucionar este asunto debe ser una prioridad de este equipo de gobierno, porque al final esta mala situación o esta situación excepcional también influye en el estado económico de este ayuntamiento, y no para bien, precisamente. También entendemos que volverá a licitar estos contratos que están caducados. Nos dará una nueva oportunidad para actualizar y mejorar dichos servicios actualmente desfasados que ofrecemos a la ciudadanía. ¿Y qué es lo que consideramos que nos debe mover para sacar este asunto de manera prioritaria? Queremos confiar, aunque tampoco tenemos muchas esperanzas en que esta vez atiendan a la petición que hace el grupo municipal socialista y que la presentación del próximo informe trimestral podamos ver avances positivos y frutos sobre este asunto.

“Ya veremos qué pasa. Eskerrik asko. Muchas gracias.”

Berriro ere, Alkate jaunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ogasun Batzordean esan genuen bezela, kontratazio teknikaria baja egoeran dago, ez dago zerrendarik, gaur gaur-gaurkoz, Administrazio publikoan hori ordezkatzeko. Formula desberdinak begiratzen ari gara, egia esan genizuen formuletakoa hoietako bat zain zen, bueno, buru-belarri ari gea gai horrekin.

“Horrez gain, nik eskertu beharra daukat Idazkaria lan handia egiten ari dela dauden plegu horiek ateratzeko. Guk bide horretan jarraituko dugu, eta zuk esan duzun bezela, hurrengo hiru hilabeteko txostenerako egoera hobea izatea nahi dugu eta uste dugu horrela izango dela.”

Berriro ere, Alkain jaunak, PSE-EE udal talde politikoko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, querría aprovechar también para sumarme al agradecimiento del señor alcalde a la labor que está haciendo el secretario, la labor extra, que, como decíamos, si es verdad que no quería hacer mención a la situación del área de contratación, porque corresponde a la situación personal de un trabajador, pero sí que es cierto que, independientemente de que esté o no esté o venga un sustituto o sustituta, este trabajo hay que hacerlo. Este diagnóstico hay que hacerlo. O sea, no podemos seguir improvisando más y que quien venga se encuentre un, pues, bueno, es una montaña de papeles cuando tenemos contratos que están caducados y que corren serio riesgo de que se puedan ejecutar o de que esas empresas mañana digan que no, que no lo acometen.

“Entonces, por lo tanto, vuelvo a decir que emplazamos a que, a que se haga, que se nos pase, y veremos dentro de tres meses los frutos de ello. Gracias.”

Jarraian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal talde politiko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nik, gehitzekotan, bakarrik, kontratazio teknikaria bajan dago orain. Kontratu batzuk, dagoeneko urte eta bi hilabete daude, alegia, nik uste dut erantzukizuna ez dela pertsona batena, elkarbanatuak direla, teknikariena, politikariena, guztiona.

“Beraz, nik uste dut ez dugula zentratu behar justu gauza puntual horretan baizik eta, bueno, ibilbide



guzti horretan behintzat erantzukidetasuna denona da eta ez nuke nahi orain sinplifikatzea hilabete honetako baja hontara, ze ikusten badugu datetan, aurreko urteko abuztutik datozen esleipen batzuetaz ari gara eta bueno, behintzat, ñabardura hori egiteko.”

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Egoera azaltzeagatik esan dut, zeren badakizue ondo, Ogasun Batzordean hitz egin dugula honi buruz eta bilatzen ai gean formulei buruz ere bai.”

Jarraian, Lainez andreak, PSE-EE udal talde politikoko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“No tenía pensado intervenir, pero efectivamente, no nos parece que sea correcto centrarlo en la persona de la técnico de la contratación. Porque además usted ahora habla de que en tres meses espera, o quieren que haya mejoras en el servicio, cuando la última comisión, que fue en julio, ya les trasladamos además que una persona esté de baja, pues, efectivamente, es responsabilidad del equipo de gobierno que las que haya sustituciones, y si no se pueden conseguir con personal externo, pues, tenemos técnicos también que pueden realizarlo dentro del ayuntamiento. Y fue el compromiso del señor alcalde hacerlo así, y que nos iban a traer el plan de acción, que tampoco lo han traído todavía.

“Con lo cual creo que ya llevamos muchos meses. Creo que no podemos seguir esperando a que haya soluciones. Como muy bien se ha dicho, hay pliegos que requieren que ya sean sacados nuevamente, y desde luego tienen las herramientas para poder hacerlo. Con lo cual, por favor, les pedimos que aterricen ya, que ya llevan mucho más de un año, que fue el tiempo que nos dieron a nosotros. Y de verdad que aterricen, céntrense y, desde luego, pongan soluciones a los problemas que tiene este Ayuntamiento. Eskerrik asko.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Osoko Udalbatzaren Bilkura jakinaren gainean geratu da.

#### **4. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 1646/2024 zenbakidunetik 2071/2024 zenbakidunera.**

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die Alkatetzaren ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 1646/2024 zenbakidunetik 2071/2024 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatzaren Bilkura jakinaren gainean geratu da.

#### **5. Galderak, eskaerak eta proposamenak.**

Alkate jaunak, txanda ireki du eta lehenbizi, Alkain jaunak, PSE-EE udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, arratsalde on, buenas tardes de nuevo, y esta pregunta va dirigida específicamente al señor alcalde. En el pleno de julio les interpelamos ante el error que ustedes cometieron en el proceso de participación que provocó que los ganadores del sorteo para poder presenciar los festejos de Sanjuanes no se les hubiese avisado y, por lo tanto, no pudiesen disfrutar de su premio. Entonces publicaron una nota de prensa en la que admitió su error, pedían disculpas y anunciaban, y leo literal: “El Gobierno municipal pondrá medidas para que este tipo de errores no vuelvan a repetirse”. Bien, en aquella interpelación, como les digo, en el mes de julio les pedimos que, por favor, nos detallasen qué tipo de medidas eran, porque por lo menos el Grupo Municipal Socialista las desconocía. Lejos de detallarlas en este pleno, usted en primera persona asumió el compromiso de que la siguiente Comisión de Cultura que se celebre nos traerían dichas medidas. Leo literal del acta su intervención: “Hurrengo Kulturako Batzordean izango duzue neurrien berri”. Pues bien, convocada y celebrada la Comisión de Cultura el pasado 18 de septiembre, nos llega el primer incumplimiento de su palabra dada, ni neurrien berri, ni rastro de su compromiso. ¿Y cuál es la consecuencia de la falta de medidas, de las medidas prometidas por usted? Pues que siete días después de celebrarse dicha comisión celebran ustedes un sorteo para regalar seis invitaciones dobles para el campeonato de bertsos de Gipuzkoa, que se celebra en Bastero, y cometen otro grave error en el proceso, esta vez celebrar el sorteo, y publican el nombre de las personas ganadoras, estando aún el sorteo en vigor, concretamente el día 25 de septiembre, un día antes de que se



haya acabado, desde que se acabase el plazo fijado por ustedes para el día 26 y que anunciaron tanto en nota de prensa como en la cuenta oficial de Facebook, en la de Twitter e Instagram, en la web, en el canal de Whatsapp y en las crónicas del Diario Vasco de ayer día 25 y de hoy día 26.

“Y este es el segundo pleno consecutivo en el que tenemos que pedir explicaciones ante un proceso participativo mal ejecutado. Bien es cierto que esta mañana la concejala de Cultura me ha trasladado la explicación, cosa que agradezco, pero no deja de ser usted, porque así lo dijo en el anterior pleno el responsable de esto. Y entonces, por lo tanto, y teniendo en cuenta que ya ha incumplido su palabra dada en el anterior pleno, y considerando que la ausencia de dichas medidas anunciadas por usted son la consecuencia de este nuevo preocupante error, le volvemos a preguntar cuándo van a presentarnos las medidas para que este tipo de errores no vuelvan a repetirse.

“Este grupo municipal les va a dar la primera de las medidas preventivas para que no vuelvan a producirse este tipo de situaciones. Y es que ya os dijimos en el pasado pleno de julio, y es que, si no están dispuestos o no están preparados para asumir correctamente y con garantías dichos procesos participativos, que directamente no los celebren, porque los ciudadanos ponen ilusión y ganas que luego se convierten en frustración, desilusión y descrédito para esta institución. Muchas gracias.”

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Bueno, zuk esan dezun bezela gaur goizean bai teknikariak eta bai zinegotzi ahaldunak, bai idatziz eta gero zuri pertsonalki ahoz azaldu dizute zer den gertatu dena, eh. Egia da, egun bat lehenago ospatu dala zozketa hori. Egia da, baita ere atzotik aurrera ez dela inor apuntatu, esan dezagun. Akatsaren jakitun gara. Eh. Erantzunkizunez hartzen degu, baina gure ustez, bai idatziz jaso duzuen komunikazioan eta bai ahoz Kultura zinegotziaren aldetik jaso duzuen azalpenean erantzunda dago. Erantzuna dago.”

Alkain jaunak, jarraitzen du esanez:

“Bueno, le he formulado una pregunta y usted no la ha respondido. No sé si deliberadamente o porque se le ha pasado. Se la voy a volver a formular. ¿Cuándo van a presentarnos las medidas para que este tipo de errores no vuelvan a repetirse? Usted anunció que en la siguiente Comisión de Cultura se nos iban a pasar, y no se han pasado.

“Y, segundo, efectivamente, nadie pudo apuntarse ayer al sorteo porque ustedes limitaron la posibilidad de hacerlo, porque yo mismo intenté hacerlo y no se podía. Lo tenían limitado. Por lo tanto, es imposible que sepan si alguien más lo intentó, porque lo tenían limitado. Y ya estamos hablando de temas técnicos y de decisiones. Entiendo que políticas o directrices políticas para que ello no ocurra. Ya lo dijimos también en julio.

“Al final entendemos que este caos y la desorganización, nos da la sensación que ha venido para quedarse, y al final el tiempo nos está dando la razón. Así que igualmente también les emplazamos a que una vez más aclaren públicamente el error, no solamente al concejal del grupo municipal socialista, porque así lo pedimos, sino también, como hicieron la otra vez al resto de gente que desde hoy, tal y como venía en prensa, como seguía apareciendo en la web, podía tener la posibilidad de participar en el sorteo. Den explicaciones, asuman su responsabilidad y pidan disculpas. Muchas gracias.”

Jarrian, Goenaga jaunak, EAJ/PNV udal talde politiko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bai, bueno, guk gomendio edo erregu bat ein behar dugu. Beno, dauka lotura interbentorearen txostenarekin baita ere, baina, bueno, udalak erabiltzen dituen zerbitzu edo asistentzia edo proveedore horien inguruan. Ikusten da eta hala dio teknikariak, maiztasun handiz errepikatzen diren proveedore batzuekin lan egiten dela,

“Jardun hori ez da zuzena eta nik uste dut hor egin behar dugula, esfortzu bat esango nuke, baita ere urgentea, lizitazio irekiak egiteko eta lehia ireki batean edozein proveedorek parte hartzeko. Eta batez ere ikusten dugulako, jo, askotan sententzioa daukagu eta onean esaten dugu, beti berdinekin ari garela lanean, ez.

“Adibidea jarriko det, oso grafikoa, ulertzeko. Berriki, Hirigintza Sailak eskatu ditu hiru oferta, Bastero Kulturgunearen inguruko urbanizazio guztia berritzeko, eraberritzeko. Jo, pentsatu genezakeen, bueno, justu oain dela hilabete batzuk, 20 urte bete ditu eraikinak. Eraikin hura egin zuten arkitektoak egon dira ekitaldietan. Gutxienez haiei ere gonbidatuko zitzairen, ba gure sorpresarako, ez, ez. Betiko bi o hiru



ingenieriak.

“Gonbidatu zaie kasualmente herriko hoditeriaren obrak egiten dituzten ingeneritzei. Herriko errepedeen obrak egiten dituzten ingeniariak, alegia. Jo, beti daude estudio berdinak, ingeniari berdinak. Guk ez degu esaten txarrak direnik, ez, ez, baizik esaten dugu, flexibleagoa eta zabalagoak izan behar degula kontratazioetan, ze bat-batean derrepente etortzen zaigu Bilboko estudio bat, adibidez, kulturako lokalen inbentarioa egitera. Eta esaten dugu. Ez al dago herrian edo eskualdean, tokiko edo gertuko probeedore hori? Ba ziurrenik bai, ez? Beraz, gure gomendioa edo, aholkua da, jo, izan gaitezen zorrotzak bere garaian ere hori eskatu zitzaigulako eta nik uste dut tokiko artista, tokiko estudio, tokiko teknikari, eta zerbitzu horien kontratazioa kanpora ateratzen denean gutxienez eta zuzeneko kontratazioak direnean, errepikatzen det, ze momentu honetan zuzeneko kontratazio asko egiten ari gara, saiatzea tokiko hornitzaileekin lan egitera, ez?”

“Eta Basteroko kasua esan det oso argia delako, ez? Jo, ez degu sentsibilitaterik izan eh. eraikina egin zuen edo urbanizazio jatorrizko hori egin zuen artista berari eskatzea.

“Aizu, egintzazu orain berriztatze lan bat. Ulertzen det askotan presarekin pues dazkazu hiru proveedore eta lehengo beti betiko berdinei. Ba nik uste dut inertzia horiek ere saiatu behar degula buelta ematen edo behintzat ahalegin hori egiten.”

Alkate jaunak, erantzuten du:

“Ados, erabat ados hausnarketarekin. Eta jakina, ez dugula beti asmatzen eta ez dugu, beti lortzen, baina bai, saiatzen gara tokiko enpresekin, tokiko edo inguruko enpresekin lan egiten, baina onartzen dugu oraindik asko daukagula egiteko eta bide horretan jarraituko degu.”

Jarraian, jendaurreko herritar batek eskatu du hitza eta Idazkari jauna berari zuzenduz, honakoa esan du:

“Streaming bitartez ari da emititzen udalbatzarra zuzenean eta zure imagina eta ahotsak grabatuko dela zure oniritziarekin. Bai? Bale, ados.”

Alkate jaunak hartu du hitza eta honakoa galdetu du:

“Politikoki bukatu degu, ulertzen det. Bai. Ados. Orain herritarrari emango diogu hitza.”

Herritarren parte-hartea bukatu ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza honakoa esateko:

“Bueno, ba besterik gabe orduan udalbatzarraren bilkura amaitutzat emango genuke. Mila esker eta ondo izan.”

Eta beste aztergaiarik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.31 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritoki Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.  
Alkatea

Idazkaria

